

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

260/2022 Foru Agindua, maiatzaren 6koa, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onespena ematea TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen betekizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzeari

Zerga iruzurra saihesteko tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharra ezarri zuen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Arauak TicketBAI betebeharra betetzera behartzen ditu hainbat zergadun; hain zuzen ere, sozietateen gaineko zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak eta establezimendu iraunkor baten bidez errentak eskuratzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak.

TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegiari onspena eman zion urriaren 5eko 48/2021 Foru Dekretuak betebehara horren araudia osatzen duen arau bidezko garapenari ekin zion, eta, era berean, TicketBAI softwareak bete beharreko zehaztapen tekniko eta funtzionalak ezarri zituen, Arabako Foru Aldundiaren foru agindu bidez onesteko. TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen otsailaren 27ko 802/2021 Foru Aginduaren onspenaren bidez gauzatu zen arauketa hori.

Hala, aipatutako arautegiaren III. kapituluko 3. atalean araututako TicketBAI fitxategia bidaltzeari dagokionez, 14. artikuluko 3. apartatuak xedatzen du zerga administrazioak ezetsi ahal izango dituela arautegi horretan eta hura garatzeko onetsitako zehaztapen tekniko eta funtzionalak ezarritako betekizunak baldintzak betetzen ez dituzten TicketBAI fitxategiak eta, hala gertatuz gero, ezetsitako fitxategiak zuzendu egin beharko direla.

Bada, foru agindu honek ezetsitako TicketBAI fitxategiak zuzentzeko fitxategien jasotze zerbitzuaren betekizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen ditu.

Horri dagokionez, bereizi egiten da, alde batetik, guztiz ezetsi den TicketBAI fitxategiaren tratamendua, hau da, fitxategia jasotzea eragozten duten erroreak izateagatik ezetsi den fitxategiarena. Kasu horretan, zuzentze fitxategi bat sortu beharko da, eta zuzendu-alta edo zuzendu-baliogabetzea zerbitzuen bidez bidali.

Bestetik, partzialki ezetsi den TicketBAI fitxategiaren eta zuzentze fitxategiaren tratamendua arautzen da, hau da, jaso den baina baliozkotze jakin batzuk ez gainditzeagatik errore oharrak dituen fitxategiarena. Kasu horretan, TicketBAI fitxategia edo zuzentze fitxategia zuzendu ahal izango dira, bai zuzenean Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sartuz, bai aldatze fitxategi bat sortuz eta hura Zerga Administrazioari bidaliz zuzendu-alta zerbitzuaren bidez.

TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegiaren garapenean jasotakoa betez, onetsi egin behar dira TicketBAI fitxategiak zuzentzeko fitxategien jasotze zerbitzuaren, prozeduraren eta zehaztapen tekniko eta funtzionalen betekizunak.

Ikusirik gaiari buruz Zerga Araudiaren Zerbitzuak emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa, zeinean lege antolamenduari egokitutzat jotzen baita foru agindua.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau:

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Ezetsi den TicketBAI fitxategiari dagokion informazioa bidaltzeko prozedura

1. TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduan ezarritako gutxieneko baliozkotzeak ez betetzeagatik ezetsi den TicketBAI fitxategiari dagokion informazioa zuzendu egin beharko da, zuzentze fitxategia bidaliz, foru agindu honen I. eranskinean arautzen diren zuzendu zerbitzuen betekizunen, prozeduraren eta zehaztapen tekniko eta funtzionalen arabera.

2. Ezetsitako TicketBAI fitxategiak ezin izango du inolako aldaketarik izan, eta sistema informatikoaren barruan gorde beharko da jatorrizko egoeran, hala bermatuko baita TicketBAI softwareak sortutako TicketBAI fitxategiaren osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna.

2. artikulua. Jaso diren baina baliozkotze jakin batzuk ez gainditzeagatik errore oharrak dituzten TicketBAIko alta fitxategiari eta TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategiari buruzko informazioa bidaltzeko prozedura

1. TicketBAIko alta fitxategia edo TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia jaso bada, baina erroreak baditu eta horiek zergadunari jakinarazi bazaizkio REST zerbitzuaren bidez fitxategia jasotzean, edo ondoren, beste bitarteko batzuen bidez, fitxategi horien informazioa modu hauetako batean aldatu behar da:

a) Hori egiteko Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa zergadunaren eskura jartzen den zerbitzua erabiliz.

b) Aldatze fitxategia bidaliz, foru agindu honen I. eranskinean arautzen diren zuzendu-alta zerbitzuaren betekizunen, prozeduraren eta zehaztapen tekniko eta funtzionalen arabera.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako bitartekoak osagarriak dira, eta bietako edozein erabili ahal izango da erroreak zuzentzeko.

2. Jaso den baina errore oharrak dituen TicketBAIko alta fitxategiak ezin izango du inolako aldaketarik izan, eta sistema informatikoaren barruan gorde beharko da jatorrizko egoeran, hala bermatuko baita TicketBAI softwareak sortutako TicketBAI fitxategiaren osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Aldatzea TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen duen foru agindua.

Ondoren adierazitako aldaketak egiten dira TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen otsailaren 27ko 802/2021 Foru Aginduan.

Bat. Xedapen iragankor bakarra gehitzen da. Hona hemen testua:

“Xedapen iragankor bakarra. TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoa zehaztapenen araubide iragankorra.

Erabateko baliozkotasuna eta ondorioak izango dituzte sortutako eta Arabako Foru Ogasunera bidalitako TicketBAI fitxategiek, baldin eta elektronikoki sinatu badira, foru agindu honen III. eranskinean (“TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoa zehaztapenak”) jasotako sinadura elektronikoa zehaztapenak betez, eta, zehazki, TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuaren betekizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen foru agindu honen bidez III. eranskinean egindako aldaketa indarrean sartzen den egunean indarrean dagoen idazketaren arabera sinatu badira”.

Bi. Aldatu egiten da III. eranskina, "TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak" izenekoa, eta idazketa berria eransten zaio foru agindu honi.

Hiru. Aldatu egiten da IV. eranskina, "TicketBAI fitxategien zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta fitxategiak bidaltzeko betekizunak" izenekoa, eta idazketa berria eransten zaio foru agindu honi.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 6a

Lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA



I. ERANSKINA

TICKETBAI FITXATEGIAK ZUZENTZEKO ETA ALDATZEKO ZUZENDU ZERBITZUEN BETEKIZUNAK, PROZEDURA ETA ZEHAZTAPEN TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK

1. Helburua.

Eranskin honek TicketBAI fitxategiari dagokion informazioa bidaltzeko prozedura ezartzen du, baldin eta fitxategi hori ezetsi egin bada eta/edo errore oharrekin jaso bada, TicketBAI betebeharra arautzen duen araudian ezarritako betekizunak eta baldintzak ez betetzeagatik.

Era berean, zehaztapan tekniko eta funtzionalak ezartzen ditu, bai eta zuzentze zerbitzuen edo "zuzendu" zerbitzuen betekizunak ere, beharrezkoak baitira Arabako Foru Aldundiak zuzentze fitxategiak edo "zuzendu" fitxategiak dituzten mezuak jaso ditzan.

Informazioa denbora errealean hornitzeko, REST zerbitzuak erabiliko dira.

2. Definizioak:

Eranskin honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

2.1. Zuzentze fitxategiak edo "zuzendu" fitxategiak: ondorengo A) eta B) letretan definitutako zuzentze fitxategiak eta/edo aldatze fitxategiak:

A) Zuzentze fitxategiak: ondorengo a) eta b) letretan definitutako TicketBAI fitxategien zuzentze fitxategiak:

a) TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia: Ezetsi den TicketBAIko alta fitxategian bidali beharreko informazio zuzena jasotzen duen fitxategia da.

b) TicketBAIko baliogabetze fitxategia zuzentzeko fitxategia: Ezetsi den TicketBAIko baliogabetze fitxategian bidali beharreko informazio zuzena jasotzen duen fitxategia da.

B) Aldatze fitxategiak: TicketBAIko alta fitxategia aldatzeko fitxategia eta TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia aldatzeko fitxategia, ondorengo a) eta b) letretan zehaztutakoak:

a) TicketBAIko alta fitxategia aldatzeko fitxategia: Errore oharrekin jaso den TicketBAIko alta fitxategian bidali beharreko informazio zuzena jasotzen duen fitxategia da.

b) TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia aldatzeko fitxategia: Errore oharrekin jaso den TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategian bidali beharreko informazio zuzena jasotzen duen fitxategia da.

2.2. Zuzentze zerbitzuak edo "zuzendu" zerbitzuak: ondorengo A) eta B) letretan definitutako zuzendu-alta eta/edo zuzendu-baliogabetzea zerbitzuak:


A) Zuzendu-alta zerbitzua: TicketBAIko alta fitxategiak zuzentzeko fitxategien eta aldatze fitxategien mezuak jasotzeko Arabako Foru Aldundiaren zerbitzua da.

B) Zuzendu-baliogabetze zerbitzua: TicketBAIko baliogabetze fitxategiak zuzentzeko fitxategien mezuak jasotzeko Arabako Foru Aldundiaren zerbitzua da.

3. Zuzentze fitxategiak bidaltzeko prozedura

TicketBAI fitxategia ezesten bada TicketBAI fitxategien egiturari edo gutxieneko edukiei lotutako erroreak dituelako, zuzentze fitxategi bat sortu behar da, eta zuzendu-alta zerbitzuaren bidez bidali.





TicketBAiko balio gabetze fitxategia ezesten bada TicketBAI fitxategien egiturari edo gutxieneko edukiei lotutako erroreak dituelako, zuzentze fitxategi bat sortu behar da, eta zuzendu-balio gabetzea zerbitzuaren bidez bidali.

Zuzentze fitxategia ere ezesten bada TicketBAI fitxategien egiturari edo gutxieneko edukiei lotutako erroreak dituelako, zuzendu egin behar da eta beste zuzentze fitxategi bat sortu, eta zuzendu-alta edo zuzendu-balio gabetzea zerbitzuaren bidez bidali.

4. Aldatze fitxategiak bidaltzeko prozedura

TicketBAiko alta fitxategia edo TicketBAiko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia errore oharrekin jasotzen bada eta ez bada beharrezkoa faktura zuzentzaile bidez bidaltzea baina errore horiek fitxategian jakinarazi beharrezko gainerako datuek kontsolidazio baliozkoak ez gaituzte ondorio badira, aldatze fitxategi bat sortu behar da, eta zuzendu-alta zerbitzuaren bidez bidali.

Era berean, TicketBAiko alta fitxategia edo TicketBAiko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia errore oharririk gabe jasotzen bada baina zergadunak uste badu beharrezkoa dela fitxategiak duen informazioa aldatzea, baldin eta ez bada faktura zuzentzailea jaulkitzeko kausa, aldatze fitxategi bat sortu behar da, eta zuzendu-alta zerbitzuaren bitartez bidali.

5. Zuzendu zerbitzuen funtzionamenduaren eskema orokorra.

5.1. TicketBAI softwareareaz aparteakoa.

Zuzendu fitxategiak sortzeko eta zuzendu zerbitzuen bidez bidaltzeko funtzionaltasuna TicketBAI softwarearen zehaztapenetatik kanpo geratzen da.

TicketBAI softwareak bere sisteman gordeko du ezetsi den edo errore oharrekin jaso den fitxategia. TicketBAI fitxategi hori aldatetarik gabe gorde behar da, jasotze zerbitzura bidali zen bezala.

5.2. Mezuak bidaltzea

Zuzendu fitxategiak baliabide elektronikoak baliatuz bidali behar dira, zehazki, XML mezuen trukean oinarritutako REST zerbitzuen bidez. Mezu guztiei modu sinkronoan erantzuten zaie.

Bi mezu mota daude: bata fitxategiak zuzendu-alta zerbitzuaren bidez bidaltzeko, eta bestea fitxategiak zuzendu-balio gabetzea zerbitzuaren bidez bidaltzeko.

5.3. Baliozkoak

Zuzendu fitxategiek Arabako Foru Aldundiaren web orrian une bakoitzean argitaratzen diren baliozko guztiak gaituzte beharko dituzte. Baliozkoekin batera argitaratuko dira horietako bakoitzari dagozkion erroreen sailkapena eta errore horiei lotutako kodeak eta azalpenak, bai eta fitxategiak jasotzearekin zerikusia duten gainerako oharrak ere.

Jasotze edo kontsolidazio baliozkoak izan daitezke, eta modu sinkronoan edo asinkronoan egin daitezke.

Zuzentze fitxategien kasuan, jasotze nahiz kontsolidazio baliozkoak izan daitezke. Aldatze fitxategien kasuan, baliozko guztiak jasotze baliozkoak izango dira.


5.3.1. Jasotze baliozkoak.

Zuzendu fitxategiek jasotze baliozkoetakoren bat gaituzten ez badute, erantzunean "01 Ezetsia" agertuko da, eta errore motaren berri emango da.

Zergadunak, akatsak zuzendu ondoren, dagokion zuzentze edo aldatze fitxategia birbidali beharko du.

Ezetsitako zuzendu fitxategiak ez dira erregistratuko Arabako Foru





Aldundiaren sistema informatikoan.

5.3.2. Kontsolidazio baliozkotzeak.

Zuzentze fitxategiek jasotze baliozkotzeak gainditzen badituzte, erantzunean "00 Jasoa" agertuko da. Horrez gain, baliteke kontsolidazio baliozkotzeak egitea modu sinkronoan, eta, gainditzen ez badira, zerbitzuaren erantzun mezuan jakinaraziko da eta detektatutako errore mota adieraziko da.

Baliteke Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoak, geroago, kontsolidazio baliozkotze gehiago egitea jasotako informazioari buruz, modu asinkronoan. Baliozkotze gehigarri horietan errorerik detektatuz gero, beste baliabide batzuk erabiliz emango zaio zergadunari horren berri.

Nolanahi ere, kontsolidazio erroreak Arabako Foru Aldundiaren fakturak kontsultatzekeo web aplikazioan ere kontsultatu ahal izango dira.

Errore oharrak dituen TicketBAIko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia jasoz gero, esan nahiko du errore hauetakoren bat detektatu dela:

a) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako fakturazio betebeharren araudiaren 15. artikuluko 1 eta 2 apartatueta jasotako kausekin lotutako erroreak, faktura zuzentzailea jaulkitzea exijitzen dutenak. Kasu horretan, faktura zuzentzaileari dagokion TicketBAIko alta fitxategia sortu beharko da, eta TicketBAIko alta fitxategiak jasotzeko zerbitzura bidali.

b) Faktura zuzentzailea egin beharrik ez dakarten erroreak, TicketBAI fitxategian jakinarazi behar diren gainerako datuen ondorio direnak. Kasu horretan, aldatze fitxategia sortu behar da, eta zuzendu-alta zerbitzuaren bidez bidali.

Errore oharrak dituzten fitxategiak Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoan erregistratuko dira.

5.4. Erantzun mezuak.

Erantzunaren XML fitxategian, erantzunaren egoeraz gain, TicketBAI kodea eta XML fitxategiaren jasotze ordua agertuko dira. Erantzunean TicketBAI koderik ez egoteak esan nahi du ezin izan dela zehaztu zuzendu fitxategian jasotako informazioaren TicketBAI kodea.

6. Zuzendu zerbitzuak.

6.1 Zuzendu-alta zerbitzua.

Zuzendu-alta zerbitzuak bi ekintza egiteko aukera ematen du:

- Zuzendu: Sisteman alde zurretik ezetsi den TicketBAIko alta fitxategi bat zuzendu behar bada, zuzendu-alta zerbitzua erabili beharko da, Zuzendu ekintzaren bidez.

- Aldatu: Sisteman aurretik jaso den TicketBAI fitxategi bat edo zuzentze fitxategi bat zuzendu behar bada, zuzendu-alta zerbitzua erabili beharko da, Aldatu ekintzaren bidez.

Zerbitzu horren bidez, fitxategi hauek dituzten mezuak jasoko dira:

- TicketBAIko alta fitxategiak zuzentzeko fitxategiak.
- TicketBAIko alta fitxategiak aldatzeko fitxategiak.
- TicketBAIko alta fitxategiak zuzentzeko fitxategiak aldatzeko fitxategiak.

Zuzentze fitxategiek eta aldatze fitxategiek TicketBAIko alta fitxategiak izan behar zuen informazioa jasoko dute, baina sinaduraren atala ezabatuko da. Era berean, elementu berri bat izango dute, zuzentzen edo aldatzen den TicketBAIko alta fitxategiaren sinaduraren lehen 100 karakterekin.





Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko da fitxategi horiek zehazki zer formatu eta diseinu izan behar duten.

6.2 Zuzendu-baliogabetzea zerbitzua

Zuzendu-baliogabetzea zerbitzuaren bidez zuzenketak baino ezin dira egin.

Zerbitzu honen bidez jasotzen dira TicketBAiko baliogabetze fitxategiak zuzentzeko fitxategiak dituzten mezuak.

Zuzentze fitxategiek TicketBAiko baliogabetze fitxategiak izan behar zuen informazioa jasoko dute, baina sinaduraren atala ezabatuko da. Era berean, elementu berri bat izango dute, zuzentzen den TicketBAiko baliogabetze fitxategiaren sinaduraren lehen 100 karaktereekin.

Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko da fitxategi horiek zehazki zer formatu eta diseinu izan behar duten.

7. Estandarrak eta betekizunak.

7.1 Sarrera.

Mezuaren edukia XML fitxategi bat da. XML fitxategiak egituretan zehazten diren arauak bete behar ditu, formatuei, derrigortasunari eta abarrei dagokienez. Nolanahi ere, datuen koherentzia haiek prestatzen eta aurkezten dituztenek bermatu behar dute.

Egitura bakoitza datu multzoetan dago antolatuta, eta multzo horietan datu elementuak daude. Horiek bloke logikoak osatzeko moduan taldekatu dira, eta, aldi berean, egitura bakoitzaren eremuarekiko koherentziari eutsi zaio. REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektronikoen bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren aldean, hala xedatzen baitu TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduaren IV. eranskineko 3.1 puntuak. Horrenbestez, zuzendu zerbitzuak erabiltzeko, Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoen bat behar da. Ziurtagiria pertsona fisikoarena, erakundearen ordezkariarena, gailuarena, erakundearen zigilu elektronikoa, autonomoarena edo baimendutako beste edozein izan daiteke.

Zuzendu fitxategiak bidaltzeko zergadunaren ziurtagiria erabil daiteke edo, bestela, hauetako bat:

- Borondatezko ordezkariaren ziurtagiria, 2d mailakoa.
- Hirugarrenaren edo hartzailearen ziurtagiria.
- Zergadunak jada baimendutako gailuaren ziurtagiria, abenduaren 27ko 802/2021 Foru Aginduaren IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.


Hirugarrenen edo hartzaileen kasuan, fakturazioaren inguruko betebeharren araudian ezartzen dena bete behar da (18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa).

7.2 Estandarrak.

RESTful web zerbitzuak webgunean APIak edo programazio interfazeak azaltzeko erabiltzen dira. Helburua da errendimendua, eskalagarritasuna eta malgutasuna ohiko web zerbitzuenak baino hobek izatea, bezeroei aukera emateko datuak eta baliabideak aurreikusteko moduko URLen bidez eskuratzeko. Horrela komunikatuko dira informazio sistemak elkarrekin (herritarrarena/enpresarena eta Foru Ogasunarena). RESTful zerbitzuak garatzeko *de facto* estandarrak erabiliko dira.

Zuzendu fitxategien egituraren oinarrian XML eskemak daude, eta 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa erabili da (lotura: <http://www.w3.org/TR/xmlschema-0>); erreferentzia (namespace): <http://www.w3.org/2001/XMLSchema>.





Zerbitzu bakoitzak sarrerako mezu bat eta irteerako erantzuna izango ditu definituta, zein bere XSD eskemaren bidez.

8. Zuzendu zerbitzuen definizioa.

8.1 Zuzendu-alta zerbitzuko fitxategiak jasotzea

Zerbitzu honen bidez sartzen dira Arabako Foru Aldundiaren sisteman TicketBAlko alta fitxategiak zuzentzeko fitxategiak eta aldatze fitxategiak.

8.1.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.1 edo berriagoa).

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service

Kodeketa: UTF-8. Sarrera XML bat da, ondoren agertzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena.

TicketBAlko alta fitxategia zuzentzeko fitxategiak eta aldatze fitxategiek egitura hau izan behar dute:

ZUZENDU-ALTA XSD eskema	urn:ticketbai:zuzendu-alta
	Goiburua
	Subjektuak
	Faktura
	TBAIaztarna
	SignatureValueFirmaFactura
Erantzuna	00 Jasoia 01 Ezetsia

Goiburuko elementuen, subjektuen, fakturaren eta aztarnaren definizioa TicketBAI fitxategien alta eskema komunitik hartu behar da (TicketBAI webguneko dokumentazio teknikoaren arloko *Faktura bidaltzeko eta baliogabetzeko XSD fitxategien eskemak* atalean argitaratzen dira: <https://www.araba.eus/ticketbai>).


TicketBAlko alta fitxategiekiko aldean xehetasunak:

- XML dokumentuko sinadura atala kendu behar da:

```
<complexType>
  <sequence>
    <element name="Cabecera" type="T:Cabecera"/>
    <element name="Sujetos" type="T:Sujetos"/>
    <element name="Factura" type="T:Factura"/>
    <element name="HuellaTBAI" type="T:HuellaTBAI"/>
    <element name="SignatureValueFirmaFactura" type="T:SignatureValueFirmaFactura"/>
    <element ref="ds:Signature"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- Eremu berria erantsi behar da goiburuan, gauzatu beharreko ekintza zehazteko:
 - "ZUZENDU".





- "ALDATU".

```
<complexType name="Cabecera">
  <sequence>
    <element name="IDVersionTBAI"
type="T:IDVersionTicketBaiType"/>
    <element name="Accion" type="T:AccionType"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- *SignatureValueFirmaFactura* elementua erantsi behar da:
 - TicketBAiko alta fitxategia zuzentzeko fitxategietan edo aldatze fitxategietan, zuzentzen edo aldatzen den TicketBAiko alta fitxategiaren sinaduraren lehen 100 karaktereak jaso behar dira.
 - Zuzentze fitxategiak aldatzeko fitxategietan, aldatzen den zuzentze fitxategiaren *SignatureValueFirmaFactura* atala jaso behar da.

```
<complexType name="SignatureValueFirmaFactura ">
  <sequence>
    <element name="SignatureValueFirmaFactura"
type="T:TextMax100Type"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- TicketBAI aztarna mantendu behar da eta bertan jaso zuzendu edo aldatu nahi den TicketBAiko alta fitxategian bidali zen informazioa.

Zerbitzuaren helbidea:

<https://ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/facturas/subsanarmodificar>

Behar diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten aplikazioak ziurtagiri elektroniko baten bidez egiaztatu behar dira bezeroaren aldean. Horrenbestez, zerbitzuak erabiltzeko, Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektroniko bat behar da.

Sinadura: Sarrerako XML mezua ez da sinatzen.

8.1.2 Erantzuna.

Ingurunea: Internet.



Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Irteera UTF-8 kodifikazioa duen XML bat da, ondoren agertzen den XSD irteera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena (*ticketBaiResponse.xsd*). TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuaren erantzun fitxategiaren eskema bera da.

Sinadura: Erantzun mezua ez da sinatzen.





8.1.3 Eraitza kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan ageri den egoeraren kode orokorrak honako bi balio hauek izan ditzake:

BALIOA	AZALPENA	ESANAHIA
00	Jasoa	TicketBAiko alta fitxategia zuzentzeko fitxategia edo aldatze fitxategia jaso da.
01	Ezetsia	TicketBAiko alta fitxategia zuzentzeko fitxategian edo aldatze fitxategian erroreak daude, eta ezin da jaso.

8.2 Zuzendu-baliogabetzea zerbitzuko fitxategiak jasotzea

Zerbitzu honen bidez sartzen dira Arabako Foru Ogasunaren sisteman TicketBAiko baliogabetze fitxategiak zuzentzeko fitxategiak.

8.2.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.1 edo berriagoa).

Bidaltzeko modua: POST.


Mezuak: Rest Service

Kodeketa: UTF-8. Sarrera XML bat da, ondoren agertzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena.

TicketBAiko baiogabetze fitxategia zuzentzeko fitxategiak egitura hau izan behar du:	urn:ticketbai:zuzendu-baja
ZUZENDU-BALIOGABETZEA XSD eskema	
	Goiburua
	Faktura ID
	TBAIaztarna
	SignatureValueFirmaAnulacion
Erantzuna	00 Jasoa 01 Ezetsia



7



Goiburuko elementuen, fakturaren eta aztarnaren definizioa TicketBAI fitxategien baliogabetze eskema komunetik hartu behar da (TicketBAI webguneko dokumentazio teknikoaren arloko *Faktura bidaltzeko eta baliogabetzeko XSD fitxategien eskemak* atalean argitaratzen dira: <https://www.araba.eus/ticketbai>).

TicketBAIko baliogabetze fitxategiekiko aldean xehetasunak:

- XML dokumentuko sinadura atala kendu behar da:

```
<complexType>
  <sequence>
    <element name="Cabecera" type="T:Cabecera"/>
    <element name="Factura" type="T:Factura"/>
    <element name="HuellaTBAI" type="T:HuellaTBAI"/>
    <element
      name="SignatureValueFirmaFactura"
      type="T:SignatureValueFirmaFactura"/>
    <element ref="ds:Signature"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- *SignatureValueFirmaFactura* elementua erantsi behar da, eta bertan jaso behar dira zuzentzen den TicketBAIko baliogabetze fitxategiaren sinaduraren lehen 100 karaktereak.

```
<complexType name="SignatureValueFirmaAnulacion">
  <sequence>
    <element
      name="SignatureValueFirmaAnulacion"
      type="T:TextMax100Type"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- TicketBAI aztarna mantendu behar da eta bertan jaso zuzendu nahi den TicketBAIko baliogabetze fitxategian bidali zen informazioa

Zerbitzuaren helbidea:

<https://ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/anulaciones/baja>



Behar diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten aplikazioak ziurtagiri elektroniko baten bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren aldean. Horrenbestez, zerbitzuak erabiltzeko, Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektroniko bat behar da.

Sinadura: Sarrerako XML mezua ez da sinatzen.

8.2.2 Erantzuna.





Ingurunea: Internet.
Protokoloa: HTTPS.
Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Irteera UTF-8 kodifikazioa duen XML bat da, ondoren agertzen den XSD irteera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena (*ticketBaiResponse.xsd*). TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuaren erantzun fitxategiaren eskema bera da.

Sinadura: Erantzun mezua ez da sinatzen.

8.2.3 Emaidza kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan ageri den egoeraren kode orokorrak honako bi balio hauek izan ditzake:

BALIOA	AZALPENA	ESANAHIA
00	Jasoa	TicketBAiko balio gabetze fitxategia zuzentzeko fitxategia jaso da.
01	Ezetsia	TicketBAiko balio gabetze fitxategia zuzentzeko fitxategian erroreak daude, eta ezin da jaso.

9. BESTE OHAR BATZUK.

9.1. Erroreak eskaerak prozesatzean.

HTTP eskaera prozesatzean erroreak gertatzen bada, HTTP protokolo estandarrean azaltzen den bezala jakinarazi behar da.


Laburpen modura, eskaera bati erantzutean honako kasu hauek gerta daitezke:

Bezeroaren aldeko emaitza	Ekintza
Espero den XML formatua duen erantzuna jasotzen da.	Eskaera prozesatu egin da. Erantzuna aztertu behar da eragiketaren emaitza zehazteko.
Erantzuna jasotzen da eta formatua okerra da.	Errorea gertatu da eskaera prozesatzean. Eskaera berriz egin behar da.

9.2. Karaktere berezi batzuen ihes kodeak.

XML elementu batean beheko taulako karaktereak erabili behar izanez gero, ihes kodeak ezarri behar zaizkie:





Karakterea	Ihes karakterea
&	
<	<
>	>





TICKETBAI FITXATEGIEN SINADURA ELEKTRONIKOAREN ZEHAZTAPENAK

1. Helburua.

TicketBAI betebeharraren araudian, TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen alta eta baliogabetze fitxategien sinadura elektronikoa aipatzen da, eta eranskin honek sinadura horren zehaztapenak ezartzen ditu.

Sinadura elektronikoen zehaztapenak identifikatzaile bakar honekin identifikatuko dira: <https://ticketbai.araba.eus/tbai/sinadura/>

Identifikazio hori nahitaez sartu behar da TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen alta eta baliogabetze fitxategien sinadura elektronikoa. Horretarako, dagokion identifikazio eremua erabili behar da zehaztapenen esparru orokorra zehazteko, bai eta bertsioa ere, baliozkotzeko aplikatzeak diren baldintza orokor eta espezifikoekin.

2. Irismena.

2.1. Eragileak.

Sinadura elektronikoa sortzeko eta baliozkotzeko prozesuan honako eragile hauek aritzen dira:

- Sinatzailea: sinadura sortzeko gailua daukan pertsona fisikoa edo juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea, TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen alta edo baliogabetze fitxategi bat sinatzen duena.
- Egiaztatzailea: zehaztapen jakin batzuetan eskatzen diren baldintzen arabera sinadura elektronikoa bat baliozkotzen edo egiaztatzen duen erakundea (pertsona fisikoa zein juridikoa).
- Konfiantzako zerbitzuen emalea: ziurtagiri elektronikoa ematen dituen edo sinadura elektronikoen inguruko beste zerbitzuren bat ematen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.
- Sinadura zehaztapenak ezartzen dituen: sinatzaileak eta egiaztatzaileak sinadura elektronikoa sortzeko eta baliozkotzeko prozeduretan kontuan hartu beharreko dokumentu hau sortzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den erakundea.

2.2. Sinadura elektronikorako onartutako formatua.

TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen alta eta baliogabetze fitxategien sinadura elektronikorako onartutako formatua honako hau da: XAdES (XML Advanced Electronic Signatures), ETSI EN 319 132-1 V1.1.1, ETSI TS 103 171 V2.1.1 eta ETSI TS 101 903 V1.4.2 zehaztapen teknikoaren arabera. Estandarraren hurrengo bertsioetarako, sintaxian egindako aldaketak aztertuko dira eta profila estandarraren bertsio berrira egokitzea onartuko da, eranskin hau aldatuz.

Sinaduraren zehaztapen hauetan, ds: eta xades: aurrizkiak erabiliko dira, XMLDSig eta XAdES estandarretan definitutako elementuak aipatzeko, hurrenez hurren.

XAdES formatuan hainbat mota daude; gutxienez oinarritzko mota sortzeko prestatu behar da sinadura, eta sinadura zehaztapenei buruzko informazioa gehitu behar da (EPES mota).

2.3. Sinadura elektronikoa sortzea.

Komenigarria da dagoeneko badiren liburutegi kriptografikoak edo produktuak erabiltzea sinadura elektronikoa sortzeko.



Ez da beharrezkoa sinatzean TSA zerbitzu batek emandako denbora zigilua (TimeStamping) txertatzea sinaduran.

2.4. Sinadura elektronikoa egiaztatzea.

Egiaztatzaileak zeinahi metodo estandarizatu erabil dezake eranskin honekin bat etorritik sortzen diren sinadurak egiaztatzeko. Sinadura baliozkotzeko honako baldintza hauek bete behar dira gutxienez:

1. Sinaduraren osotasunaren baliozkotasuna bermatu behar da.
2. Ziurtagiriak baliozkoak izan behar dira fitxategia sinatzen denean.
3. Sinatzailearen ziurtagiria gordailu publiko batean eskuragarri dagoen ziurtapen praktiken berariazko adierazpen baten arabera egin behar da.
4. Sinatzailearen ziurtagiria egiten duena konfiantzako zerbitzuen emaile kualifikatuen (QTSP) zerrendan egon behar da. Zerrenda hori hemen aztertu daiteke: <https://webgate.ec.europa.eu/tl-browser/#/>.

2.5. Sinadura zehaztapenak kudeatzea.

Sinadura zehaztapenak mantentzeko, eguneratzeko, argitaratzeko eta hedatzeko ardura Arabako Foru Aldundiak dauka.

Zehaztapen hauen eguneratzeak Arabako Aldizkari Ofizialean eta hemen argitaratuko dira: <https://ticketbai.araba.eus/tbai/sinadura/>

3. Sinadura elektronikoa baliozkotzeko politika.

Atal honetan zehazten da zer hartu behar duen kontuan sinatzaileak sinadura elektronikoa sortzeko eta zer hartu behar duen kontuan egiaztatzaileak sinadura elektronikoa baliozkotzeko.

3.1. Indarraldia.

Sinadura zehaztapen hauek indarrean egongo dira argitaratzen direnetik eguneratutako bertsio berria argitaratu arte. Bertsio eguneratua argitaratuz gero, aldi batez bi bertsioak erabili ahal izango dira; horrela, eragileek beren plataformak bertsio berriaren zehaztapenetara moldatu ahal izango dituzte. Trantsizioaldi horren iraupena bertsio berrian adierazi beharko da, eta amaitutakoan, bertsio eguneratua soilik erabili ahal izango da.

3.2. Arau orokorrak.

Sinadura elektronikoa aritzen diren eragileek (sinatzaileek eta egiaztatzaileek) bete beharreko arau orokorrak sinadura zehaztapen guztietan agertu beharreko nahitaezko eremu batean biltzen dira. Arau horien bidez, sinadura sortzen duen pertsonak edo erakundeak eta hura egiaztatzen duen pertsonak edo erakundeak sinadura elektronikoa inguruan dituzten erantzukizunak ezar daitezke. Hain zuzen ere, arauetan ezartzen da zer bete behar duten gutxienez bata eta besteak (sinatzailearenak sinatuta egon behar dute; egiaztatzailearenak ez).

3.3. Sinatzaileak bete beharreko arauak.

Sinatzaileak egiaztatu behar du sinatu beharreko TicketBAI fitxategian ez dagoela denbora pasatu ahala sinaduraren emaitza aldatu dezakeen eduki dinamikorik. Sinatu beharreko TicketBAI fitxategia sinatzaileak berak sortu ez badu, egiaztatu behar du haren barruan ez dagoela inolako eduki dinamikorik (makroak, esate baterako).



XAdES formatua: XAdESenveloped sinadurak baino ez dira onartuko. Ez dira onartuko XAdESenveloping eta XAdESdetached sinadurak.

Sinatzaileak nahitazeko etiketa hauetako informazioa eman behar du, gutxienez, SignedProperties eremuan (eremu horretako propietateak batera sinatzen dira XMLDsig sinadura sortzean):

- SigningTime: Sinatzaileak sinatzeko prozesua noiz egin duen zehazten du.
- SigningCertificateV2 edo SigningCertificate¹: Ziurtagiriak eta haietan erabilitako segurtasun algoritmoak jasotzen ditu. Elementu hau sinatu egin behar da, ziurtagiria ordeztuko modurik egon ez dadin.
- SignaturePolicyIdentifier: Sinadura elektronikoa sortzeko oinarritzat hartzen diren sinadura zehaztapenak identifikatzen ditu. Hainbat elementu ditu eta horietan honako datu hauek adierazi behar dira:
 - o Sinadura zehaztapenen dokumentu honen berariazko aipamena, xades:SigPolicyId elementuan. Horretarako, sinadura zehaztapenen bertsioa identifikatzen duen OID agertu behar da, edo haien URL helbidea.
 - o Sinadura zehaztapenen dokumentuaren aztarna digitala eta erabili den algoritmoa, <xades:SigPolicyHash> elementuan. Horri esker egiaztatzaileak balio hau kalkulatu dezake eta ziurtatu dezake sinadura sortzeko aplikatutako zehaztapenak baliozkotzeko aplikatuko diren berak direla.

SignedProperties eremuan erantsi daitezkeen gainerako etiketak aukerakoak dira:

- SignatureProductionPlaceV2 edo SignatureProductionPlace²: Dokumentua sinatu den leku geografikoa zehazten du.
- SignerRoleV2 o SignerRole³: Sinadura elektronikoa pertsonak duen rola zehazten du. Erabiliz gero, balio hauetako bat jarri behar da ClaimedRoles eremuan:
 - o "Supplier" edo "igorlea": igorleak sinatuz gero.
 - o "Customer" edo "hartzailea": hartzaileak sinatuz gero.
 - o "Thirdparty" edo "hirugarrena": igorlea edo hartzailea ez den beste pertsona edo erakunde batek sinatuz gero.
- CommitmentTypeIndication: Zehazten du zer egin duen sinatzaileak dokumentuarekin (onartu, bete, jaso, ziurtatu...).
- AllDataObjectsTimeStamp: Sinadura sortu aurretik kalkulaturako denbora zigilua ezartzen du ds:Reference elementu guztietan.
- IndividualDataObjectsTimeStamp: Sinadura sortu aurretik kalkulaturako denbora zigilua ezartzen du ds:Reference elementu batzuetan.

CounterSignature etiketak sinadura elektronikoa berresten du; UnsignedProperties eremuan sar daiteke, eta aukerakoa da. Hurrengo sinadurak, seriekoak edo paraleloak, XAdES estandarrak adierazten duenaren arabera gehituko dira (319 102-1 dokumentua).

¹ SigningCertificateV2 - ETSI EN 319132, SigningCertificate - ETSI TS 101 903, ETSI TS 103 171.

² SignatureProductionPlaceV2 - ETSI EN 319 132, SignatureProductionPlace - ETSI TS 101 903, ETSI TS 103 171.

³ SignerRoleV2 - ETSI EN 319 132, SignerRole - ETSI TS 101 903, ETSI TS 103 171.



3.4. Egiaztatzaileak bete beharreko arauak.

Sinadura elektronikoa aurreratuaren oinarritzko formatuan jasotzen den baliozkotze informazio bakarra sinatzailearen ziurtagiria da. Egiaztatzaileak honako atributu hauek erabil ditzake sinadura sortzeko aplikatutako sinadura zehaztapenak betetzen diren egiaztatzeko:

- Signing Time: Sinadura elektronikoa egiaztatzean, data jakin batean ziurtagirien egoera zein zen egiaztatzeko baino ez da erabiliko; izan ere, denbora erreferentziak ziurtatzeko modu bakarra denbora zigilua da (batez ere sinadura bezero gailu baten bidez eginez gero).
- SigningCertificatev2 edo SigningCertificate: Sinadura sortzen den egunean ziurtagiria (eta, behar den kasuetan, ziurtapen katea ere bai) nola dagoen egiaztatzeko erabiliko da, baldin eta ziurtagiria iraungita ez badago eta egiaztatzeko datuak (CRL, OCSP) eskuratu ahal badira edo, bestela, ziurtapen zerbitzua ematen duenak ziurtagiriaren egoeraren historia aztertzeko aukera ematen badu.
- SignaturePolicyIdentifier: Egiaztatu behar da sinadura sortzeko aplikatutako sinadura zehaztapenak bat datozela zerbitzu jakin baterako erabili beharrekoekin.

Denbora tarte batez (zuhurtsun aldia edo graziako aldia) ziurtagiria ezeztatu den ala ez egiaztatu daiteke. Egiaztatzaileak aldi hori igaro arte itxaron dezake sinadura baliozkotzeko, edo sinatzean baliozkotu dezake eta gero berriz baliozkotu. Izan ere, baliteke denbora tarte bat pasatzea sinatzailea ziurtagiri bat ezeztatzen hasten denetik ziurtagiriaren ezeztapenaren egoeraren berri behar den informazio puntuetara heldu arte. Gomendatzen da aldi horren iraupena sinadura egiten denetik gutxienez CRLak erabat eguneratu arte gehienez igaro daitekeen denbora izatea edo, bestela, OCSP zerbitzuan ziurtagiriaren egoera eguneratzeko behar den denbora. Denbora horiek aldatu egin daitezke ziurtapen zerbitzua egiten duenaren arabera.

3.5. Algoritmoak erabiltzeko arauak.

ETSI TS 119 312 V1.3.1 zehaztapenean onartzen diren RSA sisteman oinarritutako algoritmo guztiak erabil daitezke. Gutxienezko ezaugarriak:


- Gakoaren tamainak 1024tik gorakoa izan behar du.
- SHA256 edo bertsio berriagoa.

4. TicketBAI softwarearen arkitekturaren ondoriozko baldintzak.

4.1. Onartzen diren ziurtagiriak.

TicketBAI softwareak honako ziurtagiri hauetako bat erabili behar du TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen alta eta baliogabetze fitxategietan sinadura elektronikoa txertatzeko:

- Gailuaren ziurtagiria: Gailu bakoitzari identitate bakarra ematen dio; fakturak edo ordainagiriak egiteko erabiltzen den gailuan instalatuta eta harekin lotuta dago.
- Pertsona fisikoaren edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiria: Pertsona fisiko edo pertsona juridikoa nor den frogatzen du.
- Enpresaren zigilua: Ziurtagiri tekniko da, TicketBAI softwareak bere kabuz erabil dezakeena, edo sail edo lantalde bateko pertsona batzuek ere erabil dezakete. Ziurtagiri hau enpresek lanerako erabili ohi duten kautxuzko zigiluaren antzekoa da.
- Autonomoaren ziurtagiria: Kualifikatu gabeko ziurtagiria da. Jarduera ekonomiko bat autonomo modura egiten duten pertsona fisikoentzat egiten da, Pertsona Fisikoen



Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan ezartzen denarekin bat etorritz. Ziurtagiria egiteko, ezinbestekoa da pertsona fisikoak frogatzea hala ari dela lanean.

4.2. Sinaduraren murrizketak arkitekturaren arabera.

4.2.1. Bezero sinaduradun arkitekturak.

Bezero sinaduradun arkitekturetan, sinadura egiten duen TicketBAI softwarea fakturazioa egiteko erabiltzen den gailuan bertan dago. Esaterako, idazmahaiko aplikazio batean.

Sinatzeke urruneko gailu batean sartu behar bada, horren arkitektura zerbitzari sinaduraduna da.

Honelako arkitekturetan ziurtagiriek ez dute murrizketarik. Honako hauek erabil daitezke sinatzeko: gailuaren ziurtagiria, pertsona fisikoaren ziurtagiria, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, enpresa zigilua edo autonomoaren ziurtagiria.

4.2.2. Zerbitzari sinaduradun arkitekturak.

Zerbitzari sinaduradun arkitekturetan, sinadura egiten duen TicketBAI softwarea ez dago fakturazioa egiteko erabiltzen den gailuan. Beraz, fakturaziorako erabiltzen den bezero gailutik urruneko beste gailu batean sartzen da sinadura sortzeko.

Gainera, fakturak edo ordainagiriak egiteko prozesua inoren ikuskapenik gabe egiten bada (batch), arkitektura zerbitzari sinaduraduna da.

Honako hauek erabil daitezke sinatzeko: pertsona fisikoaren ziurtagiria, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, enpresa zigilua edo autonomoaren ziurtagiria edo gailuaren ziurtagiria.

Ezin izango da zerbitzariko gailuaren ziurtagiria erabili hirugarrenentzako edo hartzaileko fakturazioa egiten duten enpresen kasuan.

4.2.3. Bezero sinadura eta zerbitzari sinadura erabiltzeko aukera ematen duten arkitekturak.

Banatutako arkitekturetan, bezero sinadura zein zerbitzari sinadura hauta daiteke, bakoitzaren murrizketak kontuan edukiz.

Esaterako, web aplikazioetan:

- Bezero sinadura aplikazioan sartzeko erabiltzen den nabigatzailea instalatuta dagoen gailuan egiten da; bezero sinaduradun arkitekturen murrizketak aplikatzen dira.
- Zerbitzari sinadura nabigatzailearen bidez sartzen den urruneko zerbitzarian egiten da; zerbitzari sinaduradun arkitekturen murrizketak aplikatzen dira.

Arkitektura batean ezin dira aldi berean egin bezero sinadurak eta zerbitzari sinadurak. Baliagarri dauden arkitekturetako bat hautatu behar da.

5. Elkarrekotasuna.

Elkarrekotasuna aplikatuta, eranskin honetan sinadura elektronikoari buruz jasotako zehaztapenak betetzat joko dira zergadunek betetzen badituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Bizkaiko Foru Aldundiak horren inguruan ezarritako zehaztapenak.



TICKETBAI FITXATEGIEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK ETA FUNTZIONALAK ETA FITXATEGIAK BIDALTZEKO BETEKIZUNAK

1. Helburua.

Eranskin honetan ezartzen da zer beharkizun tekniko behar diren Arabako Foru Aldundiaren TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuak fitxategi horiek jaso ditzan. Informazioa denbora errealean hornitzeko, REST zerbitzuak erabiltzen dira.

2. Funtzionamenduaren eskema orokorra.

2.1 Mezuak bidaltzea

TicketBAI fitxategiak baliabide elektronikoak baliatuz bidaltzen dira, XML mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuen bidez. Mezu guztiei modu sinkronoan erantzuten zaie.

Bi mezu mota daude: bata TicketBAIko alta fitxategiak bidaltzeko, eta bestea TicketBAIko baliogabetze fitxategiak bidaltzeko.

2.2 Baliozkotzeak

TicketBAI fitxategiek Arabako Foru Aldundiaren web orrian une bakoitzean argitaratzen diren baliozkotze guztiak gainditu beharko dituzte. Baliozkotzeekin batera argitaratuko dira horietako bakoitzari dagozkion erroreen sailkapena eta errore horiei lotutako kodeak eta azalpenak, bai eta fitxategiak jasotzearekin zerikusia duten gainerako oharrak ere.

Jasotze edo kontsolidazio baliozkotzeak izan daitezke, eta modu sinkronoan edo asinkronoan egin daitezke.

TicketBAI fitxategia jaso ondoren berez egiten da baliozkotzeko prozesua, bai sintaktikoa (XML formatua), bai negoziokoa, eta erantzuna beste XML mezu bat da:

- TicketBAI fitxategiak ez badu baliozkotzeetako bat gainditzen, erantzunean adieraziko da fitxategia ez dela onartu eta zer errore gertatu den azalduko da.
- TicketBAI fitxategiak gutxieneko baliozkotzeak gainditzen baditu, erantzunean adieraziko da fitxategia ongi jaso dela. Nolanahi ere, fitxategia ongi jaso arren, baliteke erroreak edo oharrak agertzea; hala bada, gero zuzendu beharko dira.

Fitxategia ongi jaso eta gero, Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoak baliozkotze gehiago egin ahal izango ditu jasotako informazioari buruz, modu asinkronoan. Baliozkotze gehigarri horietan errorerik detektatuz gero, beste baliabide batzuk erabiliz emango zaio zergadunari horren berri, edo horretarako gaitzen den web aplikazioan ere kontsultatu ahal izango dira.



2.2.1 Jasotze baliozkotzeak

TicketBAI fitxategiek jasotze baliozkotzeetakoren bat gainditzen ez badute, erantzunean "01 Ezetsia" agertuko da, eta errore motaren berri emango da. Erroreak hauek izan daitezke:

- a) TicketBAI fitxategiak bidaltzeko/jasotzeko prozesuarekin lotutako erroreak. Hala badagokio, berriz bidaliko dira fitxategiak, behin erroreak zuzenduta.
- b) TicketBAIko fitxategiaren egiturarekin edo gutxieneko edukiekin lotutako erroreak.
Hainbat arrazoi izan daitezke:
 - Jaso den TicketBAI fitxategiaren egitura ez dator bat XSD eskeman zehaztutakoarekin.
 - TicketBAI fitxategiaren edukiak ez du betetzen gutxieneko baliozkotzeetako bat. Adibidez, TicketBAIko alta fitxategia bidaltzen denean:
 - o Homologatu gabeko ziurtagiria edo ezeztatutako ziurtagiria erabiltzea.
 - o Ez egotea informaziorik xehetasun lerroetan.
 - o Ez egotea TicketBAI identifikazio kodea kalkulatzeko behar den informazioa.
 - o Aurretik bidalita egotea eta erantzuna *Jasoa* izatea.

Erroreak zuzendu ondoren, berriz bidali behar dira TicketBAI fitxategiak informazio zuzenarekin. Kasu honetan, TicketBAI fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen betekizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen foru agindu honetan ezarritako prozeduraren eta betekizun teknikoaren arabera bidali behar da.

Ezetsitako TicketBAI fitxategiak ez dira erregistratuko Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

2.2.2 Kontsolidazio baliozkotzeak

TicketBAI fitxategiek jasotze baliozkotzeak gainditzen badituzte, erantzunean "00 Jasota" agertuko da. Horrez gain, baliteke kontsolidazio baliozkotzeak egitea modu sinkronoan, eta, gainditzen ez badira, zerbitzuaren erantzun mezuan jakinaraziko da eta detektatutako errore mota adieraziko da.

Baliteke Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoak, geroago, kontsolidazio baliozkotze gehiago egitea jasotako informazioari buruz, modu asinkronoan. Baliozkotze gehigarri horietan erroreak detektatuz gero, beste baliabide batzuk erabiliz emango zaio zergadunari horren berri.

Edonola ere, kontsolidazio erroreak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez kontsultatu ahalko dira.

Honako hauek izan daitezke erroreak:

- a) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako fakturazio betebeharren araudiaren 15. artikuluko 1 eta 2 apartatueta jasotako kausekin lotutako erroreak, faktura zuzentzailea jaulkitzea exijitzen dutenak. Kasu horretan, faktura zuzentzaileari dagokion TicketBAIko alta fitxategia sortu beharko da, eta TicketBAIko alta fitxategiak



jasotzeko zerbitzura bidali.

- b) Faktura zuzentzailea egin beharrik ez dakarten erroreak, TicketBAI fitxategian jakinarazi behar diren gainerako datuen ondorio direnak. Kasu honetan, TicketBAI fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa bidali behar da, bat etorri TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen betekizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen Foru Agindu honetan ezarritako prozedurarekin eta betekizun teknikoekin.

Erroreak dituzten fitxategiak ez dira erregistratuko Arabako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

2.3. Erantzun mezuak

Erantzunean honako datu hauek ere emango dira: TicketBAI identifikazio kodea eta TicketBAI fitxategia jaso den ordua.

Erantzunean TicketBAI identifikazio koderik ez egoteak esan nahi du ezin izan dela zehaztu kode hori TicketBAIko alta fitxategiko informazioaren arabera.

3. Estandarrak eta betekizunak.

3.1 Sarrera.

Mezuaren edukia XML fitxategi bat da. XML fitxategiak egituretan zehazten diren arauak bete behar ditu, formatuei, derrigortasunari eta abarrei dagokienez. Nolanahi ere, datuen koherentzia haiek prestatzen eta aurkezten dituztenek bermatu behar dute.

Egitura bakoitza datu multzoetan dago antolatuta, eta multzo horietan datu elementuak daude. Horiek bloke logikoak osatzeko moduan taldekatu dira, eta, aldi berean, egitura bakoitzaren eremuarekiko koherentziari eutsi zaio.

REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektronikoen baten bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren aldean. Horrenbestez, zerbitzuak erabili ahal izateko, ezinbestekoa da Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoa instalatuta edukitzea informazioa bidaltzeko erabiltzen den fakturazio gailuan. Ziurtagiria pertsona fisikoarena, erakundearen ordezkariarena, gailuarena, zigilu elektronikoa edo autonomoarena izan daiteke.

Zergadun baten TicketBAI fitxategia bidaltzeko haren ziurtagiria erabil daiteke edo, bestela, hauetako bat:

- Borondatezko ordezkariaren ziurtagiria, 2d mailakoa.
- Gailuaren ziurtagiria.
- Hirugarrenaren edo hartzailearen ziurtagiria.



Gailuaren ziurtagiria erabiliz gero, bidalketa egin aurretik, zergadunak baimena eman beharko du gailuak ziurtagiri hori erabil dezan mezuak zergadunaren izenean bidaltzeko. Aplikazio bat gaitu da baimen hori emateko. TicketBai sistemari buruzko informazioa biltzen duen araba.eus orriari eskura daiteke.

Faktura hirugarren batek edo hartzaileak egin badu, horren berri eman behar da xml fitxategian (<HirugarrenBatekEdoHartzaileakEgindakoFaktura>) eta ziurtagiria hirugarren batena edo fakturaren hartzaileetako batena izan behar da.

Fakturak hirugarren modura edo hartzaile modura bidaltzeko, fakturazioaren inguruko betebeharren araudian ezartzen dena bete behar da (18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa).

Faktura egiten duenaren IFZ zergadunarena izan behar da, eta zergaduna alta emanda egon behar da Arabako Foru Ogasunaren zergadunen datu basean.

Fitxategia bidaltzeko erabiltzen den ziurtagiriak ez dauka zertan izan bidali nahi den TicketBAiko alta edo baliogabetze fitxategia elektronikoki sinatzeko erabilitako bera.

3.2 Estandarrak.

RESTful web zerbitzuak webgunean APIak edo programazio interfazeak azaltzeko erabiltzen dira. Helburua da errendimendua, eskalagarritasuna eta malgutasuna ohiko web zerbitzuenak baino hobea izatea, bezeroei aukera emateko datuak eta baliabideak aurreikusteko moduko URLen bidez eskuratzeko. Horrela komunikatuko dira informazio sistemak elkarrekin (herritararena/enpresarena eta Foru Ogasunarena). RESTful zerbitzuak garatzeko *de facto* estandarrak erabiliko dira.

TicketBAI fitxategien egituraren oinarrian XML eskemak daude, eta 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa erabili da (lotura: <http://www.w3.org/TR/xmlschema-0/>); erreferentzia (namespace): <http://www.w3.org/2001/XMLSchema>.

Zerbitzu bakoitzak sarrerako mezu bat eta irteerako erantzuna izango ditu definituta, zein bere XSD eskemaren bidez.

4. Zerbitzuen definizioa.

4.1 TicketBAiko alta fitxategiak jasotzeko zerbitzua.

Zerbitzu honen bidez sartzen dira Arabako Foru Aldundiaren sisteman TicketBAiko alta fitxategiak.

4.1.1 Bidaltzeko bitartekoa

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.1 edo berriagoa).

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Sarrera XML bat da, ondoren agertzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena.



TicketBAiko alta fitxategia da, eta haren formatua eta egitura zehaztuta daude TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI softwarearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzen dituen 802/2021 Foru Aginduaren I. eranskinean.





Behar diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektronikoko baten bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren aldean. Horrenbestez, zerbitzuak erabili ahal izateko, ezinbestekoa da Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoa instalatuta edukitzea informazioa bidaltzeko erabiltzen den fakturazio gailuan. Ziurtagiria pertsona fisikoarena, erakundearen ordezkariarena, gailuarena, zigilu elektronikoa edo autonomoarena izan daiteke.

Zerbitzuaren helbidea: <https://ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/facturas/>


4.1.2 Erantzuna.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Irteera XML bat da, ondoren agertzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena.





Sinadura: Erantzun mezua ez da sinatzen.

Jarraian, adibide gisa, eskema hori arrakasta kasuan aplikatzearen ondoriozko XML erantzun bat erakusten da:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketbai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-
237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:31:34</FechaRecepcion>
    <Estado>00</Estado>
    <Descripcion>Recibido</Descripcion>
    <Azalpena>Jasota</Azalpena>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>
```

Jarraian, adibide gisa, eskema hori baliozkozte erroreak dauden kasuan aplikatzearen ondoriozko XML erantzun bat erakusten da:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketbai.eus">
  <Salida>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:31:34</FechaRecepcion>
    <Estado>01</Estado>
    <Descripcion>Rechazado</Descripcion>
    <Azalpena>Baztertua</Azalpena>
    <ResultadosValidacion>
      <Codigo>002</Codigo>
      <Descripcion>El mensaje no cumple el esquema XSD
    </Descripcion>
      <Azalpena>Mezuak ez du XSDaren egitura betetzen</Azalpena>
    </ResultadosValidacion>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>
```

4.1.3. Emaitza kodeak

Erantzunaren **egoera** elementuan ageri den egoeraren kode orokorrak honako bi balio hauek izan ditzake:

BALIOA	AZALPENA	ESANAHIA
00	Jasoa	TicketBAiko alta fitxategia ongi jaso da. (Baina erroreak/oharrak izan ditzake)
01	Ezetsia	TicketBAiko alta fitxategiak akatsak ditu, eta ezin da jaso.



XML fitxategia ezesten bada, ezezkoaren arrazoa jakinaraziko da erantzunaren XML fitxategian. XML fitxategia jasotzen bada, erantzunaren XML fitxategian oharrak egon daitezke. Erantzun horren ondoren, baliteke beste egiaztapen batzuk egitea eta beste ohar batzuk izatea. AFAk web aplikazio bat gaituko du fakturen jaulkitzaileak edo haren borondatezko ordezkari baimenduak fakturak eta oharrak kontsultatu ahal izateko. Erroreen/oharren zerrenda eta horien azalpena araba.eus web orrian argitaratuko dira.



Ziurtagiria: Web zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TickeBAI softwareak ziurtagiri elektronikoen baten bidez egiaztatu beharko dira bezeroaren aldean. Horrenbestez, zerbitzuak erabili ahal izateko, ezinbestekoa da Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoa instalatuta edukitzea TickeBAI fitxategiak bidaltzeko erabiltzen den fakturazio gailuan.

Zerbitzuaren helbidea: <https://ticketbai.araba.eus/TicketBAI/v1/anulaciones/>


4.2.2 Erantzuna.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodeketa: UTF-8. Irteera XML bat da, ondoren agertzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitu behar dena.



Sinadura: Erantzun mezua ez da sinatzen.



Jarraian, adibide gisa, eskema hori arrakasta kasuan aplikatzearen ondoriozko XML erantzun bat erakusten da:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketbai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-
237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRepcion>01-03-2020 12:30:11</FechaRepcion>
    <Estado>00</Estado>
    <Descripcion>Recibido</Descripcion>
    <Azalpena>Jasota</Azalpena>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>
```

Jarraian, adibide gisa, eskema hori baliozkotze erroreak dauden kasuan aplikatzearen ondoriozko XML erantzun bat erakusten da:


```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketbai.eus">
  <Salida>
    <FechaRepcion>01-03-2020 12:25:52</FechaRepcion>
    <Estado>01</Estado>
    <Descripcion>Rechazado</Descripcion>
    <Azalpena>Baztertua</Azalpena>
    <ResultadosValidacion>
      <Codigo>001</Codigo>
      <Descripcion>Certificado remitente incorrecto (revocado o
no homologado)</Descripcion>
      <Azalpena>Bidaltzailearen ziurtagiria okerra (errebokatua
edo ez-homologatua)</Azalpena>
    </ResultadosValidacion>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>
```

4.2.3. Emaitza kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan ageri den egoeraren kode orokorrak honako bi balio hauek izan ditzake:

BALIOA	AZALPENA	ESANAHIA
00	Jasoa	Baliogabetze fitxategia ongi jaso da.
01	Ezetsia	Baliogabetze fitxategiak akatsak ditu, eta ezin da jaso.

XML fitxategia ezesten bada, ezezkoaren arrazoia jakinaraziko da erantzunaren XML fitxategian. XML fitxategia jasotzen bada, erantzunaren XML fitxategian oharrak egon daitezke. Erantzun horren ondoren, baliteke beste egiaztapen batzuk egitea eta beste ohar batzuk izatea.



AFAk web aplikazio bat gaituko du fakturen jaulkitzaileak edo haren borondatezko ordezkari baimenduak fakturak eta oharrak kontsultatu ahal izateko.
Erroreen/oharren zerrrenda eta horien azalpena araba.eus web orrian argitaratuko dira.

5. BESTE OHAR BATZUK.

5.1. Errorea gertatu da eskaera prozesatzean.

HTTP eskaera prozesatzean errorerik gertatzen bada, HTTP protokolo estandarrean azaltzen den bezala jakinarazi behar da.

Laburpen modura, eskaera bati erantzutean honako kasu hauek gerta daitezke:

Bezeroaren aldeko emaitza	Ekintza
Espero den XML formatua duen erantzuna jasotzen da.	Eskaera prozesatu egin da. Erantzuna aztertu behar da eragiketaren emaitza zehazteko.
Erantzuna jasotzen da eta formatua okerra da.	Errorea gertatu da eskaera prozesatzean. Eskaera berriz egin behar da.

5.2. Karaktere berezi batzuen ihes kodeak.

XML elementu batean beheko taulako karaktereak erabili behar izanez gero, ihes kodeak ezarri behar zaizkie:

Karakterea	Ihes karakterea
&	&
<	<
>	>